

TOPAGUNEA, "Irakurri , gozatu eta oparitu" Liburu gomendagarrien zerrenda. Bateratzailea, Uxue Alberdi.

0-3 URTE (6 liburu)

1-Bularretik mintzora Hainbaten artean(cd-liburuxka). Galtzagorri elkarte (2007)

Bularretik mintzora egitasmoa 0-6 urte bitarteko haurren irakurzaletasuna sustatu eta garatu ahal izateko, guraso eta hezitzaileak formatzeko eta inplikatzeko egitasmoa da. Izan ere, haurren garapen emozionalean literaturak duen garrantziaz aipatu guraso eta hezitzaileak kontzientziaztea da egitasmoaren helburu orokorra.

Egitasmoak Bularretik mintzora izeneko CD-liburuxka du euskarri. Bertan, Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga, Lourdes Etxebarria eta Itziar Zubizarretaren ahotsen bitartez, sehaska kantak, magaleko jolasak, esku jolasak eta hitz jolasak grabatu dira, 30etik gora, gehienak herrikoiak. Horien guztien letrak eta erabilerarako oharrak biltzen ditu gainera CDarekin batera doan liburuxkak.

2-Kukuketan, Jolaserako kantak (cd-liburuxka). Xirula Mirula, Imanol Urbiet (2006)

Haur txikiekin egiteko 25 jolas-kanta agertzen dira. Guztiek helburu berdinarekin egin dira: haurrari bere garapenean laguntzea. Jakina da bizitzako lehen hiru urteetan hazi eta garatzen dela azkarren haurra, eta jolasa dela haren espresibide naturala. Dena da jolasa urtebeteko haurarentzat. Oraindik hitzez bere sentierak adierazteko gai ez denean, gorputz-hizkuntza erabiltzen du.

3-Zer diozu, Kroko?. LODGE Jo, Ibaizabal, 2007

Liburu-jostailu honetan Kroko krokodilo ezagunak bere eguneroko beste abenturatxo bat eskainiko digu harekin jolasean aritzeko. Oraingoan hainbat keinu egingo dizkio irakurleari hark imita dezan.

4-Zeu gidari: laguntzeko ibilgailuak. CRISP Dan, Ibaizabal, 2007

Azal eta orri lodiak ditu, eta edozein dela agertzen den ibilgailua haren barrura sartzeko ateak ere baditu. Lehen orrian, kalea garbitzeko makina dago. Gero zaborra biltzeko kamioa azaltzen da, eta ondoren posta banatzekoa, liburu-busa eta lorazainak erabiltzen duena

5-Pigmeo txikia. Cyril Hahn. Ibaizabal, 2006.

Bubu pigmeoa eta oihaneko animaliak ditugu protagonistak. Animalien handitasunarekin eta Buburen txikitasunarekin jolas egiten da. Istorio ximple bezain erakargarria. Marrazki deigarri eta koloretsuek umearen arreta bereganatzea lortzen dute. Ipuinaren beraren forma originala da eta bat dator marrazkiekin.

6-Kattalin neguan. SLEGERS Liesbet, Ibaizabal, 2007

Negua da, hotz egiten du eta Katalin kalera doa. Halako batean, elurra ari duela konturatzen da Katalin. Elur panpina egin, leran ibili eta etxera. Afaldu ostean, jolastu eta lo. Oinarrizko kolore eta formekin osatutako trazu lodiko irudiak ditu eta pertsonaia buru handidunak ageri dira. Ilustrazioaren alor guztiak sinbologia estandar (unibertsal) baten bila ari dira.

3-6 URTE (7 liburu)

7-Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan. Sam McBratney. Kokinos. 2007

Haurrekin goxo egotean sortzen dira liburu honen izenburuaren antzeko komentarioak. Tonu gozoan arituko zaizkigu hizketan eta jolasean erbi handia eta erbi txikia zenbat maite duten elkar azaldu bitartean. Irudiak, garbiak eta erakargarriak, primeran egokitzen dira kontakizunera. Norbaitekin ikusten joateko liburua da hau, seguru giro goxoa eta magikoa sortuko duela.

8-Gose handiko beldarra. CARLE Eric. Itzulpena: Koldo Izagirre. Kalandraka, 2007

Beldarraren metamorfosia du ardatz nagusi Eric Carleren *Gose handiko beldarra* narrazioak. Urratsez urrats beldarraren hazkundearen berri emateaz gain, asteko egunei, zenbakiei eta izadiaren hainbat elementuri buruzko kontuak ere azaltzen ditu.

9-Muxuak, ROEP Nanda, Ttartalo, 2007

Oheratzeko garaia iritsi da. Lo hartu aurretik, Lisak muxu bat eskatzen dio aitari. "Jakina. Nolako muxua nahi duzu? Sorgin muxu bat?. Inuiten muxu bat? Edo..."

10-Otsoa dator, JADOUL, Emile Ibaizabal. Itzulpena: Aitor Arana. 2006

Hainbat ipuinetan otsoaren beldur egoten gara. Honetan ere, bere urratsak sentituko ditugu, gero eta hurbilago. Ezuste batek aho bete hortz utziko gaitu, ordea. Kartoi gogorreko orriak. Lehen irakurleentzat tamaina handiko letra larriz idatzita dago.

11-Hurbil. COLOMBO, Natalia. Pamiela&Kalandraka. 2008

Hurbil komunikazio faltari buruzko alegia bat da, pertsonen arteko harremani, indibidualismoari, desireri eta zirrarei buruzko gogoeta poetiko sakona. Ikuspuntu literariotik, kontakizunaren soiltasuna eta barne-lotura dira nabarmenak, protagonisten ekintzen paralelotasuna erakusten baita: ahate bat eta untxi bat, nor bere bakardadean sarturik bizi direnak. Obrak gonbit garbia egiten dio irakurleari: gainerako pertsonei bizkarrik ez emateko, "bizitzaren une soilen baina zoriontsuenak beste batzuekin batera bizitzeko aukera ez galtzeko", idazleak berak adierazten duen bezala.

12-Nire etxea. JADOUL, Emile. Ibaizabal

Kartoiari eta formatu apaisatu erakargarrian egindako lau liburu hauek istorio dibertigarriak kontatzen dituzte. Hainbat egile eta ilustratzaileen lanak, umorez beteak, eta familia osoak eta bereziki txikiak gozatzeko moduko ilustrazioekin hornituak.

13-Kezkamuxelak / Anthony Brown. Itzulpena: koldo izagirre. Kalandraka, 2006

Ibai kezkatuta bizi da. Gauetan amets gaiztoak izaten ditu eta ez daki zer egin. Amonak bere kezkak bukatzeko behar duena ematen dio. Oso marrazki adierazgarriak dira. Koloreen erabilera aipagarria da; txuri beltzak erabiliz beldurrezko egoerak islatzen ditu eta kolore pastelak egoera lasaietan

6-8 URTE (12 liburu)

14-Betiko. A. Durant, Debi Gliori. Itzulpena: Joxan Ormazanal. Neska-mutikoek heriotza zer den ulertzeko kontakizuna

Alan Durantek sortu, Debi Gliorik marraztu eta Joxan Ormazabalek euskaratu du Betiko kontakizuna. Lagun baten heriotza du abiapuntu. Asko maite dugun horren betiko galerak barruan uzten digun etsipena eta mina, haren beharra nabaritzea. Baina halako batean beste lagun baten batek goibelaldi hartatik atera behar dugula gogoratzen digu. Saiatuko da gu animatzen. Alferrik, hasieran. Baina poliki-poliki bada ere, lortuko du joandakoa gure bihotzean, oroimenean eta irribarrean egotea.

15-Ipuinen haria. Ferida Wolff. Marrazkiak: Elena Odriozola. Itzulpena: Uxue Alberdi. Ttartalo (2008)

Babba Zarah-k artilezko tapaki polit bat dauka. Hurrei ikaragarri gustatzen zaie bertan eseri eta amona zahararen istorioak aditzea. Egun batean, herrixkako bizilagunek arropa berriak behar dituztela ikusiko du Babba Zarah-k. Isilka, harizko tapakia askatzen hasiko da, ipuinen hariarekin arropak josteko. Laster desagertuko da tapakia, baina herritarrek ez dituzte haurrak ipuinik gabe utziko... Elena Odriozolaren marrazki ederrekin jantzitako ipuin hunkigarria.

16-Ipuin Kontalaria. Pello Añorga, Jokin Mitxelena. Aizkorri 2008

Ipuin-kontalaria ume-talde baten aurrera ipuin bat kontatzerako doan kontalariaren jardunaren deskribapena da. Baina nobedadea da metafikzio horren narrazioa ez datorkigula bere lanari buruz gogoeta egiten duen narratzaile batengandik, kontaketaaren lekukoa den ume batengandik baizik. Lekuko hori ume-talde osoaren ordezkari den "gu" baten bidez mintzatzen da, objektibotasun handiz mintzatu ere.

Eta, gure begien aurrean, txinatar kutxen jolasa zabaltzen da. Kutxarik handiena, noski, eskuartean dugun liburua da; horren barruan istorio nagusia dago: ipuin-kontalariaren saioaren narrazioa; horren barruan dagoen hurrengo kutxa ez da metaforikoa, benetakoa baizik: "ipuin-kontalariak kontatzeko erabiltzen duen kutxa, dena hitzez, letrez eta zirriborroz hornitua"; bertatik aterako du kontalariak hurrengo "kutxa", urrezko liburu bat; horren barruan, berriz, ipuin-kontalariak kontatuko dituen bigarren mailako istorioak. Eta, kutxa guztiak zabaldu diren gisa berean, itxi egingo dira geroxeago; denak, bat izan ezik: "Ate zuri-beltza itxi, urrezko liburua itxi, kutxa dena itxi, eta esan digu Ipuin-kontalariak gure begiei begiratu, leihoak izango balira bezala: -Itxiak ala irekiak? -Eta guk erantzun: -Irekiak. -Eta Ipuin-kontalariak gaineratu digu: -'Zuen begiak leiho irekiak'. Eta kutxa hartu, eta ipuina bukatu". Horrelaxe ixten da, Ipuin-kontalariaren ipuina ez ezik, haur lekukoaren narrazioa ere.

17-Goazen! DEMATONS Charlotte. Tarttalo, 2007

Tira, goazen dendara sagar batzuk erostera! Horretarako, lorategi bat gurutzatu behar da. Lorategi hori, ordea, ez da nolana hikoia. Arretaz begiratu gero, baso sorgindua dela ohartuko zara.

Album ilustratua.

18-Oinutsik jauregian ARRIETA Yolanda, Ibaizabal, 2007

Jauregi batean, bakoitzak bere jantzia zeukan. Erregeak galtzontzilo horiak, erreginak titi-zorro berdeak eta printzesak zapata gorriak. Baina printzesak uko egin zion zapata gorriak janzteari. Zer egin orduan?

19-Tapaniren istorioa. LEMBCKE Marjaleena, , Anaya-Haritz, 2007

Tapani Finlandiako ume bat da, eta ahatetxo gorria aurkitu du hondartzan; ahatetxoak papertxo bat dakar Frisch jaunaren helbidearekin. Amets egiten duten pertsonak dira liburu honen protagonistak, Tapani haurra eta Frich jauna, kamioilaria, alegia. Bakoitzak amets bat betetzeko desioa du: bata futbolaria izan nahiko luke, besteak seme bat izatea. "Egunen batean", pentsatzen du gizon helduak, "umearen logela izarrez beteta margotuko dut"... Marrazki zuri-beltzean ahatearen kolore gorria ikusten dugu hasieran bizi-bizi. Trazu fin eta garbiko marrazkiak dira. Irakurketak aurrera egin ahala, irudiak "bizia" hartzen doaz, elementu ezberdinak kolorez janzten: aterkia, oheko edredoa, gutun-azala...Eta, beti, gorria agertzen da zuri-beltzezko orrietan.

20-Sekretuak belarrira. RUIZ Ruben, , Aizkorri, 2007

Poema liburua. Urteari hilabetez hilabete buelta osoa ematen dio. Izadiko elementu asko agertzen da poemetan, animaliak nola landareak. *Ekliptea* poema irakurtzen da kontrazalean: «Eguzkia bira eta bira / ilargia jira eta jira / kolpean elkartu dira: / sekretuak belarrira».

21-Nikoleta eta gaua. RODRIGUEZ, Eider. Elkar. 2008

Nikoleta Arrieta gauaren beldur bizi da. Berak koloreak eta txoriak maite ditu, baina gauz dena da iluna eta isiltasuna. Egunez pozik eta alai ibiltzen bada ere, ilunabarrarekin batera goibeldu egiten da. Arrats batean, berriz, mika zaharra ezagutu, eta sekretutxo bat kontatuko dio honek, gauzen ikuspegia aldatuko diona.

22-Klarion gorria. Iris van der Heide, Marije Tolman. Tarttalo, 2007

Sarak klarion gorri bat aurkitu du lurrean, eta marrazki bat egiten hasi da; baina ez zaio espero zuen bezain polita atera. Klarion gorria Timi trukatu dio puxtarri batzuen orde. Aspertu egin da, ordea, puxtarriekin. Oso erraz aspertzen da gauza guztiekin. Baina hala ere, azkenean, arratsalde gogaikarri hura zoragarria bihurtuko zaio Sarari; bakarrik egin ezin duena lagunekin egitea lortuko du, eta hori gauza ederra da.

23-Gurasoak estu. Manu Lopez Gaseni, Agurtzane Villate. Aizkorri, 2008.

Gurasoak estuipuinak «gai tabu» bat ukitzen du: «guraso batzuen egoera ekonomiko larria». Bestalde, «anbiguetatearekin eta tentsioarekin» jokatu du.

24-Nire lehenengo aurkikuntzak bilduma. Ttartalo, 2006-2008 (jakintza liburuak)

25-Eta zer? Bilduma. Elkar.

8-10 URTE (8 liburu)

26-*Itsasoa etxe barruan*

Jorge sinetsita zegoen bere etxeko sukaldea itsasoa zela. Sukaldeko horma zuria eta urdina zen: urdina erdiraino eta zuria hortik sabaraino. Horregatik sartzen zen beti Jorge sukaldera urpeko betaurreko eta guzti. Gurasoek, ordea, kezkatzen hasi ziren. Hala, sukaldeko paretari urdin kolorea kendu, eta horiz margotu zuten gurasoek. Baina irudimena ezin da pintura kolore batez ezabatu, eta Jorge oso haur irudimentsua denez, itsasoa sikatu eta basamortu bilakatu zela pentsatu zuen. Eta arrainak desagertu egin ziren sukaldetik, bai, baina horrekin batera gamelua sortu zen. Eta handik aurrera durbante batekin sartzen zen Jorge sukaldera.

27-*Itsasargia.* Koos Meindert. Itzulpena: Uxue Alberdi. Ttartalo (2007)

Xaharra da amona, baina zaharragoa itsasargia. Askoz zaharragoa. Pentsa, amona neskabila musugorria zenean itsasargia zaharra zen jada. Duna atzeko herrixkan bizi zen orduan amona. Orain itsasargiko gela biribilean bizi da, han goian, Jonasekin. Jonasek itsasargiaren magaleko barazkiak zaintzen ditu. Oiloak ere bai. Eta berak garbitzen ditu arropak. Ilunabarrean itsasargiko sua pizten du, eta tea hartzen du amonarekin. Gauero, istorio bera kontatzen dio amonari, amonak berari mila eta bat aldiz kontaturikoa. Sagar gorrien koloreko masailak eta udazken zaporeko ahoa zuen neskabila zoriontsu bati buruzko istorioa da.

Herrixkako dantza-saio baten ostean itsasargiko gela iribilean bizitzearekin amets egin zuen neskabila bati buruzkoa

28-*Axa, mixa zilarra*

Alde batetik, kontu, kantu, igarkizun eta jolasen bilduma da liburu hau. Badira bertan 200 igarkizunetik gora, ipuinetik bi hamarreko, bost dozena kanta, hogeit hamar hitz-joko, dozenatxo luze bat aho-korapilo eta jolas eta bitxikeriatik eskukada bat edo beste.

Baina bilduma ez ezik, jolas egiteko liburu izan nahiko luke liburu honek, EUSKARAZ JOLAS EGITEKO LIBURUA.

29-*Gerlari handia.* Pello Añorga. Irudiak: Jokin Mitxelena. Pamiela

Gerlari handi batek bakardadean, elurretan pasatzen duen gau misteriotsu eta beldurgarria kontatzen du, irudiz eta hitzez. Irudien narrazioa oso ongi egituratuta dago, orrialde bakoitzean hurrengo gertakizunaren erreferentziak ematen ditu eta horrela hari ez da eteten. Testuak indarra du eta oso hitz gutxitan esanahi handia hartzen du.

30-*Sudurretik txintxilika.* IGERABIDE Juan Kruz, *Edebé*, 2007

Musika, niretzat, kristalezko pilota baten antzekoa da; barruan, mundu bat dago. Aitak uste du musikarako jaioa naizela. Horregatik esan zion eskolako zuzendariari bandoneoi kontzertu bat eman nezakeela; bandoneoia trikiti moduko bat da. Zuzendariari ezin hobeto iruditu zitzaion. Harrezkero, kirioak airean nabil.

31-*Aitona eta amona udalekuetan.* ORMAZABAL Joxantonio, Elkar, 2008

Libek udalekuetara ez du joan nahi. Baina aurten gurasoek ez dute amorerik eman eta hamabost egunetarako udalekuetara bidaltzen dute, beraiek mendi ibilaldi bat egiten duten bitartean. Liberen aitona-amonak, ordea, ez daude batere gustura erabaki horrekin eta biloba bisitatzera joango dira.

32-Markos kantinera. Patxi Zubizarreta Elkar, 2002

Herriko jaietako danborradan kantinera irten nahi du Markosek, ipuin honetako protagonistak. Baina ohituraz kanpo dago mutilak kantinera izatea, eta Markosek ahaleginak eta bi egin beharko ditu bere nahia betetzeko. Aldekoak eta kontrakoak izango ditu bere inguruan.

33-Anekdotak. RUIZ, Ruben. Pamiela

Ane zortzi urteko neska bat da.

Atzo, hitz berri bat entzun zion atso zahar bati Anek: anek- dota. Aneri asko gustatu zitzaion entzundako hitza, akaso, esaten den aldiro bere izena esaten delako.

Gaur, jakin du zer esan nahi duen hitz horrek. Eta jakin du hitz hori erabili beharrean pasadizo esan dezakeela. Baina Anek anekdota esatea nahiago du. Eta erabaki du berari gertatutakoak idatzi egingo dituela.

10-12 URTE (9 libururu)

34-Amilami, lamien istorioak. Juan Kruz Igerabide. Elena Odriozola. 2008.

Liburu honetan Amilami lami gazteak bizi behar izan zituen abentura eta larrialdiak kontatzen dira. Amilami, bere ama bezala, lamia zintzoa da, baina oso onak ez diren pertsonaiak ere azaltzen dira kontakizun honetan. Kontakizun nagusiaz gain, lamiei buruzko ipuinak, poematxoak eta aho-korapiloak ere ageri dira liburuan. Juan Kruz Igerabidek eta Elena Odriozolak kalitate handiko obra bat gauzatu dute zalantzarik gabe.

35-Munduari itzulia 18 ipuinetan. Antton Irusta. Elkar (2007)

Ahokotasunean du altxorra Antton Irusta idazle eta ipuin kontalariak, baina Euskal Herriko mugak gaindituz, honakoan hemezortzi kultura desberdinetako hurrek kontatutako ipuin bana irakurriko ditugu hemen, edo entzun ia... Eta, bide batez, munduaren itzulia egin.

36-Zazpi pertsonaia istorio bila. Yolanda Arrieta, Aitziber Alonso. Aizkorri, 2008.

Tonu alaian idatzitako ipuin labur honetan, jolasaren bidez, ideiak eta hizkuntza bera ere dantzan agertzen dira. Amaia Jonen arreba txikia da. Baina bere jostailuekin nahikoa ez eta Jonen ikas mahaira hurbiltzen da: arkatx potoan lagun zoragarriak aurkitzen ditu. Lagunartea, konplizitatea, inbidia eta harrotasuna bezalako sentimenduei tarte eginez, kontaerak bizitasuna lortzen du hainbat hitzekin jolasterakoan, baita errepikapenak eta koplaxoak agertzerakoan ere. Hautazko bukaerak, bestetik, ipuina jarraitzeko hiru modu eskaintzen ditu. Ilustrazioek egoki adierazten dute tresnek hartzen duten bizia. Kolore biziak erabili ditu ilustratzaileak, istorioaren protagonistak alai bezain bihurri marraztuz.

37-Gerezi lorea: Japoniako kondairak. Elkar, 2003

Kondaira hauek kultura japoniarraren adierazgarri txiki bat besterik ez dira. Japonian, musuzapi bat tolesteko erak musuzapi horren erabilera adieraz dezake: ezpainak xukatzeke, kopeta lehortzeko edo beste zerbaitetarako. Xehetasuna, ñabardura eta erritu-zaletasuna barne-barnean daramatza kultura japoniarrak. Liburu honetako ipuinek maitasunera, sentiberatasunera eta fantasiara gonbidatzen gaituzte.

38-Uratxima kementsua. Natalie Bodin. Sauré, 2004. Komikia

Sarritan adore handia behar da baten batzuei ezetz esateko. Baina horixe egin zuen Saure argitaletxeak plazaratzen duen komiki honen protagonistak, Txokeik, bizi zen Japoniako herrixkan jaun eta jabe zen mutil talderik indartsuenaren buruak neska ile zuriarekin hitz egitea debekatu zionean. Bost axola Uratximari besteak haserretzen bazitzaizkion ere, neska hura bere laguna zen eta kito. Baina neska ile zuriak ez zuen bere jarrera hura ulertu, ondo baino hobeto baitzekien zeinen gogorra zen onartua ez izatea. Berak edozein gauza egingo zukeen Txokeiren bandakoa izatearren. Eta haiek bizia bera arriskuan jartzera zeramatzen

erronkak proposatu zizkietenean, prest agertu zen eskatzen zizkietenak egiteko, benetan kementsu izatea zer zen ikasi zuen arte.

39-Hegoaldera. Alonso Manuel L, Ibaizabal, 2007

Bere jaioterritik sekula irten ez den hamar urteko neskato batek 15 egun pasa behar ditu bere aitarekin, iragan iluneko gizon bat, hainbat urtetan elkar ikusi gabe egon ondoren. Mila kilometrotik gorako bidaia bati ekingo diote ia batere dirurik gabe, suertearen esku utziz etapa bakoitzaren garapena. Eguneroko zailtasunekin batera, berriro elkarrekin bizitzeko posibilitatea dago jokoan.

40-Indianoren etxea. DÍEZ DE PALMA Jesús, Ibaizabal, 2007

Marianoren gurasoak Himalayara joan dira eta, ondorioz, bera Asturiaseko herri txiki batera izeba-osabaren etxera. Hasiera batean dena iruditzen zaio aspergarria, dena Alia ezagutu duen arte. Neskak erakutsiko dizkio herriko txokoak eta Villa Regina, antzinako etxea, herrian Indianoren etxea moduan ezaguna. Handik aurrera emozioa eta jakin-mina pizten da bi gazteengan, izan ere etxe misterioitsu horretan gertatu da hilketa bat baino gehiago. Horrek guztiak etxea ezagutzera eramango ditu eta ikara sentitu arren, barrura sartu eta gelaz gela arakatze lanetan ausartuko dira. Tentsio ugari jasan beharko dute, isilpean egindako ikerketak ondorio bereziak eta sinestezinak ekarriko baitizkie. Iluntasuna, garrasiak, soinuak, itzalak... ikarak gaudituko dituzte bi gazteek.

41-Aitategia. WHELEHAN Dennis. Ibaizabal, 2007

Jaime haserre dago bere aitarekin: beti dabil presaka eta dena ahazten zaio. Bere lagun Elenak "Aitategi" bat non dagoen kontatuko dio, eta han maileguan atera ditzakeela nahi dituen aita guztiak. Aurkituko ote du Jaimek berak nahi bezalako aita?

42-Oihaneko liburua. KIPLING, Ruyard. Itzultzailea: Antxine Mendizabal. Ttartalo (1998)

12-14 URTE (7 liburua)

43-Urtebete itsasargian. Mire Agur Meabe. Elkar (2006)

Euskadi Saria eskurarazi zion nobela honen bitartez, idazleak Espainiako gerra zibilak gurean izan zuen eragin bortitza jasotzen du. Mutiko bat osaba farozainarengana bidali dute eta han ezagutuko du errealitatea, nagusikeria, izugarrikeria... itsasoa gaiztotzen denean bezala. Istorio oso erakargarri baten bitartez jasoko dugu hori guztia, intriga eta sentsualitate ukitu batekin.

44-Kensukeren Mundua. Michael Morpurgo. Elkar (2007)

Duten guztia saldu eta belaontzi bat erosi du Michaelen aitak, munduari bira eman asmoz. Ozeano Barea zeharkatzen ari direla, gau ekaiztsu batean, Michael kareletik behera erori da. Hurrengo goizean hondartza batean esnatu da, uharte jendegabe batean.

45-Printze txikia. Antoine de Saint-Exupery. Itzulpena: Patxi Zubizarreta. (2001)

Printze txikia (Le Petit Prince) Antoine de Saint-Exuperyk idatzitako ipuina da, 1943an argitaratuta. New Yorkeko hotel batean zegoenean idatzi zuen eta AEBn argitaratu zen lehen aldiz.

Hasieran, umeentzako liburua dela ematen du, baina jorratzen diren gaiak oso sakonak dira: bizitzaren zentzua, adiskidetasuna eta maitasuna. Antoine de Saint-Exupéryk bere burua irudikatzen du Saharako basamortuan, galduta, hegazkin-istripu bat sufritu eta gero. Orduan, printze txiki estralurtar bat agertzen da eta berarekin hitz egingo du luzez. Idazleak bere ikuspegi propioa ematen du giza-ergelkeriaz eta umeen jakintza samurraz, zeina pertsona gehienek galtzen duten haztean.

Ipuinean idazleak berak egindako marrazkiak ere agertzen dira.

46-Momo. Michael Ende. Itzulpena: Ainhoa Basterretxea. Zubia (1998)

Momo neskatxa oso da berezia eta are bereziagoa bere entzuteko era. Momoren aurrean jende tentelari ideia argiak bururatzen zaizkio, bat-batean. Baina gizon grisak jendearen denbora lapurtzen hasi dira. Zer egingo ote dute gizon grisek gizakien denboraz? Horixe jakin nahi du Momok eta, horretarako, Ordu maisuaren eta Kasiopea dortokaren laguntza izango du.

47-Eta Guernica margota du Picassok. SERRES, Alain. Itzultzailea: Joxan Elozegi Alberdania (ez fikzioa)

Artista-bizitza bat, gerra, bonbardaketa bat, maisulan bat, haren sorkuntza-prozesua urratsez urrats kontatua, eta munduko kolore guztiak, azkenean, egunen batez nagusituko direnak.

Guernica maisulanaren prozesua, esanahia, eta Picassoren ibilbide artistikoan betetzen duen lekua ikasteko eta gozatzeko modu erraz, argi, poetiko eta didaktikoa.

48-Jara. Jasone Osoro. Alfaguara&Zubia

49-Errebeldeak. Susan H. Hinton. Alfaguara

14-16 URTE (6 liburu)

50-Zer da, ba, maitasuna?. Miren Agur Meabe. Irudiak: Concetta Probanza. Elkar 2008

Nobela bat da berez Zer da, ba, maitasuna?, bere baitan poema-liburu bat txertaturik daukana. Nobela bat esan dugu, baina bi direla ere esan liteke. Izan ere, bi pertsona eskatzen ditu maitasunak, bi sentimendu, bi ikuspegi, bat egin dezaketenak... edo ez. Berezi eta Mister X ditugu protagonistak; argazkilaritza eta poesia maite dituen neska da Berezi, sentikorra, amestia, kritikoa; Mister X, berriz, musika-talde batean dabilen mutila, bere zakartxoan bihozbera, umoretsua, solidarioa. Bakoitzak bere istorioa kontatzen digu, eta irakurleak aukera egin dezake: edo neskaren kontakizuna eta gogoetak irakurri aurrena, edo mutilarenak, edo biak tartekatuz joan. Halakoxea da liburuaren itxura ere: bi azal ditu, eta bietako edozeinetatik has liteke irakurketa.

51-Nire aitaren fusila. Hiner Saleem. Itzulpena: Juan Kruz Igarabide. Alberdania (2004)

Hiner Saleem zinegile eta idazle kurduak bere haurtzarora kontatzen du liburu honetan. Eta bere haurtzarora kontatzeko beretarren -bere familia hurbilaren eta kurduen- historia kontatu behar digu, Saddam Hussein aginpidera iritsi aurretik hasita, harik eta, 17 urte zituela, Iraketik ihes egin behar izan zuen arte. Ihes egin eta gero, zinemagile lanak egin ditu. Vodka Lemon da bere azken film luzea, Veneziako 2003ko zinemaldian San Marco saria jaso duena.

52-Urtebete itsasargian. Miren Agur Meabe.

1936ko uda. Gerra hasi berri da, eta Jon Garraltzetara iritsi da, osabarengana. Urtebete pasatuko du itsasargian. Urte horretan, aldatzen ikusiko ditu bere burua, bere bizitza eta bere ingura: maitasuna eta gorrotoa ezagutuko ditu, gizakiak duten onena eta txarrena, baita herri baten sufrimendua eta itxaropena ere.

Miren Agur Meabe Lekeition jaio zen 1962an, irakasletza eta Euskal Filologia ikasi zituen, eta Giltza argitaletxean ari da lanean. Haur gazte zein helduentzako liburuak idazten ditu. Sari garrantzitsuak jaso ditu, hala nola Poesiaren Kritika Saria Azalaren Kodea liburuagatik, eta Gazte literaturako Euskadi Saria Itsaslabarreko etxea eleberriagatik

53-Altzor uhartea. R.L. Stevenson. Itzulpena: Maria Garikano. Elkar. 2008.

Altzor Uhartea abenturazko eleberrien artean biribilena omen da, eredugarria. Jim Hawkins gazteak uharte baten mapa aurkitzen du pirata baten kutxan: mapa hark Flint kapitain pirata ospetsuaren altxorra non dagoen lurperatuta adierazten du. Eta espedizio oso bat abiatzen da haren bila Hispaniola belaontzian.

Onak eta gaiztoak daude, Jim Hawkins protagonista edo kapitaina alde batetik, eta piratak bestetik, Silver Luzea buru dutela, baina Stevensonek jakin du giza ariman arakutzen eta gizakiaren alde agerikoak eta ezkutukoak nabarmentzen nobelan zehar abenturen harian; hala, gertatzen da Silver piratak baduela alde ilun bat, baina, aldi berean, ateratzen zaizkio bere alde argiak, gizatasunezkoak ere.

Altxor Uhartea irakurtzea abenturak bizitzea da, eta abentura beti da arriskutsua eta horregatik baita zirrargarria ere. Arriskuan eta egoera larrietan giza arima ateratzen da, ordea, eta hor beldurrak, birtuteak, miseriak eta bestelako giza ezaugarriak erakusten dira. Bai, dudarik gabe, Altxor Uhartea abenturazko nobelen artean biribila eta eredugarria da. Eta Rober Louis Stevenson maisu agertzen

da, klasiko bat, hitzaren esanahirik ederrenean.

54-Anne Franken egunkaria. Anne Frank. Itzulpena: Josu Zabaleta. Erein (2005)

"Gauza guztiak esan ahal izango dizkizut, nik uste, orain arte inori ez bezala, eta laguntza handia emango didazula espero dut" esanez hasi zuen bere egunkaria, 1942ko ekainaren hamabian, Anne Frank neskatok. Hamahiru urte bete berriak. Adin berezia, zaila, nahaspilatua. Etorkizunari dena eskatzen zaion adina, iraganaren zati handi bat arbuiatzen dena, maitasuna eta abentura eskatzen direna, desirak oraindik izen zehatzik ez mugarik ez duena. Halako gaztetxo horrek gela gutxi batzuetan ezkutatu beharra badu, eta bere harremanak etxekeongana eta beste ezkutatu gutxi batzuegana urritzen bazaizkio, bi aukera baizik ez ditu: erotu ala idatzi.

55-Inesaren balada. Hasier Etxeberria. Elkar (2002)

Abenturazko nobela bat da Inesaren balada, XVIII. Mendeko kortsario lapurtarren mundura garamatzana, pirata-eleberrien lilura guztiaz baina berezitasun batekin: neskatxo bat da bertako protagonista. Inesa Indazubikoak ihes egingo du gurasoen ostatatutik, sortetxeari loturik iraun beste aukerarik ez baitzuen han. Pellot Kapitainaren bila joango da, harekin itsasoratzeke asmoz. Hark bezala ibili nahi ditu itsasoak eta ezagutu munduak. Tartean, hala ere, hamaika ibilera eta katramila pasatu beharko ditu.

56- **Seximenduz**, Fernando Morillo, Elkar, 2007

Bi lagun, mutilak biak. Batek baditu hainbat neska ezagun, lagun edo dena delako... Bestea, berriz, sekula ez da ausartu neska bati hitz erdirik esaten, mozkorturik ez bazen, eta horrela, jakina, ezin ganorazko ezer lortu. Esperientziagabeak mesedez eta faborez eskatuko dio lagunari erakuts diezaiola nola jokatu, nola moldatu, eta esperientziadunak onartu egingo du besteari laguntzea.

16-18 URTE (10 liburu)

57-Amaren eskuak. Karmele Jaio. Elkar (2006)

Nereak 35-40 urte ditu; noizbait maite izandako lana baina egun estresaturik daukana, egunkari batean; senar jator eta alaba zoragarria, zeinei ez dien eskaintzen behar luketen arretarik; eta istorio bat iraganean, oroimenetik erauzi nahi lukeena; eta ama ospitaleko ohean lo, inoiz esnatuko den jakin ezinik.

Amaren historia ezkutuak jakingo ditu Nereak erietxean, eta horren haritik ohartuko da zenbateraino izan daitezkeen ezezagunak geure ondoan dauzkagunak, eta, aldi berean, zenbateraino izan litezkeen berdinak belaunaldi biren arazo eta kezkek, nahiz eta garaiak eta bizomoduak asko aldatu.

Bizinahia aldeko aldarrikapena dakarkigu eleberri eder eta hunkigarri honek, bazter guztiak ziprztintzen eta blaitzen dituen itsasoaren enbatak bezala.

58-Kutxidazu bidea, Ixabel. Joxan Sagastizabal. Alberdania (1994)

Umorea da eleberri honen ardatza. Umorea literatur tratamendu egokiz egina, estilo arinez, generoaren arauetik berritzaile, eta beste berezitasun garrantzitsu batekin: arrakasta. Giharren bat ukitu izango du liburu honek euskaldun berri edo zaharberriuen gorputzean, nor bere burua identifikatua sentitzeraino pasarteren batean edo bestean.

Izan ere euskal belaunaldi baten ispilu konplexurik gabea da Kutsidazu bidea, Ixabel.

59-Kontakizunak. Edgar Alan Poe. Itzulpena: Koro Navarro. Ibaizabal. 2000

60-Galdu arte. Juan Luis Zabala. Susa. 1996

61-Narrazioak. Joseba Sarrionandia. Elkar (1983)

Irakurle eta idazleen belaunaldi oso bat markatu du liburu honek, askoren gogoan iltzaturik geratu baitira bertako hitz eta ipuinak, nolabait izendatzekotan lilura deituko genukeen sentimendu batez. Horrela definitu zuen Aingeru Epaltzak sentipen hori, argitaratu zeneko hamar urte bete zirenean: "Orduko lilura, bere horretan zegoen, batere apaldu gabe. Lilura, haren orrialdeek ageri duten kosmopolitismoak. Lilura, idazkera dotore nahastezinak, egilearen ama-hizkeraren eta gure klasikoen ekarpenak uztartzen dituenak. Lilura, esaldi zehatz neurtuen elkar jostetak isurtzen duen manierismoak. Lilura, hasi eta buka, istorio bakoitza bideratzerakoan erakusten duen bertuosismoak". Ipuin-bilduma honek sortu dituen laudorio ugariak bezain esanguratsua da euskal literatura osoan izan duen eragina, Narrazioak irakurri ondoren ezin baita berdin idazten jarraitu; beharbada ezingo duzu mundua berdin ikusten segitu.

62-Sisifo maiteminez. Laura Mintegi.

63-Bat, bi, Manchester. Irati Jimenez. Elkar. (2006)

Ezinezko amodio baten kontaketa da Bat, bi, Manchester, nobela laburrentzako Augustin Zubikarai saria irabazi duen lana. Batetik, itzultzaile diharduen baina idazle izan nahiko lukeen kontalaria dugu: homosexuala, uzkur samarra, porrot batetik irten berria; bestetik, Aitor: dena beti erraza izan zaion mutil guapoa, aktorea, heterosexuala. Halabeharrak elkartu ditu Manchesterren eta elkarrekin bizi dira etxe berean; adiskidetasun estua sortuko da bien artean, baina desira bete ezinaren itzala sumatuko da uneoro.

Sentimenduen mosaiko bat fintasunez marrazten asmatu du Irati Jimenezek; maiteminarenean anabasa psikologikoa di-da ebakitzen diren esaldietan jasoz, gure garaiaren izaera eten eta nahasia atal labur eta azkarren bidez adieraziz.

64-Bitartean heldu eskutik. Kirmen Uribe. Susa. (2001)

65-Krokodilo bat ohe azpian. Mariasun Landa. (2002)

Tipo arrunta da ipuin honetako protagonista. Arrunta du etxea, arrunta lanbidea, arrunta izena bera ere: J.J. Ohitura arruntak ditu egunero berritzen dituenak beti berdín beti berdín edo antzera. Baina halako batean, gaur, ohetik jaiki, eta batere arrunta ez den zerbait gertatu zaio: Krokodilo bat ikusi du bere ohe arruntaren azpian. Egoera surrealista horretatik abiatuta, eta umore ukitu finez, gertaerak korapilatuz doa autorea, amaiera biribil batera iristen den arte.

Gaur egungo gizakiaren bakardadearen alegia mamitsua egin digu oraingoan Mariasun Landak.

18 URTETIK GORA (25 liburu)

66-Antzaren bidea. Jokin Muñoz. Alberdania (2007)

Eli (edo Lisa) naufragio bat da. Nola edo hala iraun ahal izan du bere nora ezean, bat-bateko eztanda batek seme bakarra, Igor, lapurtu dion arte. Latza zaio bakardadea, baina are latzagoa ez jakitea. Nor ote zen Igor? Zerk eraman zuen Salouko apartamentu hartara, hamaika puskatan xehe-xehe eginda gorpu geratzera?

Gertaera horretatik ihesi, bizitzak aurrera jarraitzen duelako, eta lan egin beharra dagoelako biziko bada, agure bat zaintzen hasi da. Agureak sekretu bat gordetzen du, ordea, eta sekretu horren peskizan semearen iragana berregin usteko du puskatik puscara, bera bezalako beste naufrago bat, Gigi, lagun duelarik.

67-SPrako tranbia. Unai Elorriaga. Elkar (2001)

Benetako harribitxi bat da SPrako tranbia, lehen obra batean harrigarria den maisutasunaz idatzia. Harrigarria da gai nagusia ere, egilea gaztea izaki: agure baten eromen prozesua, izugarria izanda ere espanturik gabe kontatua; eta hunkigarria, dudarik gabe.

Gaiaren gainetik, azpimarratzekoa da sentipenak transmititzeko egileak daukan modu berezia, sentimenduez aritzeko estilo fin eta dotore hori. Protagonisten artean solasaldi txinpartatsiak topatuko ditugu, pasadizo xebreak, erromantizismo samurrez edo sentsualtasun lotsati batez beteriko pasarteak, edo lente distortsionatu batekin ikusiagatik guztiz erreala zaigun egunerokotasun bat.

Ohartzekoa da, halaber, obraren umorea: Elorriagak ez du algara bilatzen, baina ironia mehe bat sumatzen da orriz orri, bai istorioari eta pertsonaiei dagokienez, baita hizkuntzari eta idazketari buruz ere, bere langintza ongi ezagutzen duen egilea denez jolasak, paradoxak eta bestelako keinuak tartekatzen baititu Elorriagak, idazle maiteentzako omenaldiekin batera.

68-Haragia. Eider Rodriguez. Susa (2007)

Hamabi ipuinez osatua da Eider Rodriguezen bigarren bilduma hau, eta liburuko lehen kontakizunak eman dio izena: "Haragia". Aiztoaren ahoan ebakitzeko kinkan diren pertsonaiak dituzu hemen: Bizi-aldi beri baten atarian, harreman gatazkan gainbehera, urraduran ezpala sartuta. Narratzaileak gaiztoz eta krudel gobernatzen ditu gehienetan, gupida higatu batez noiztenka.

69-Aulki bat elurretan. Uxue Alberdi. Elkar (2007)

Kale txukunak, jende ordenatua, laku ederrak, elurrezko panpinak... Eta eskale zarpailak, alkoholiko errukarriak, maitasun anemikoak, harreman izoztuak. Horra hor Suediaren zati batzuk, ipuin liburu bat egiteko.

70-Zoaz infernara, laztana. Anjel Lertxundi. Alberdania (2008)

Bikote harremanak aztertzen ditu Lertxundik eleberri honetan. Gehienetan, botere harreman bihurtzen dira harreman horiek, eta gaur egungo edozein egunkari hartzea nahikoa da ikusteko ez dela gutxitan gertatzen boteretsuenak bere boterea baliatzea ahulena umiliatzeko eta tratu txarren bidez otzantzeko.

71-Gartzelako poemak. Joseba Sarrionandia. Susa (1992)

Gartzelako Poemak hau, hurrinetik ailegatu den liburu hau, Joseba Sarrionandiaren biografiaren aldi ezagunenetik hurbilen duguna da. Hain hurbil gutako askorengandik non urteotako literaturan bereizi ezina bilakatu den hartaz ari den: gartzela, oinazea, heriotza... Non dago honi buruzko urrezko metafora? Josebaren testuak, hain gustoko dituen baforeen antzera, euren kasa nabigatzen dira beti, galarrenaren ikara barik, irakurleari desio duen ur ildo utziaz.

72-Hitzen ondoeza. Joseba Sarrionandia. Txalaparta (1997)

"aitor dezadan hiztegia dela, baina ez dela hiztegia ipuin laburrak dituela baina ez dela ipuin liburua, saio ttipi ugariz osatzen dela, eta aforismoz, eta munduaren lau partetako ene auzokoen aipuek hornitzen dutela. Beraz, eman dezagun, nobela luzea dela." Hiztegi moduan taiututa dago, berbak, ostera, ez dauz edozelan aukeratu: idazlearen bizimoduko hiztegia dala esan leiteke, idazlearen gogoeta berezien emaitza.

73-Simone de Beauvoir (biografia). Arantxa Agirreurreta. Elkar (2008)

XX. mende osoaren testigu izan zen Simone de Beauvoir. Historia lehen planotik, Europaren muinetik eta ezkerreko ideologiatik bizi izan zuen. Eta guztia lehen pertsonan utzi zuen kontatuta.

74-Neguko zirkua. Harkaitz Cano. Susa. 2005

Ipuin liburu bikaina.

75-Belarraren ahoa. Harkaitz Cano. Alberdania. 2004.

Demagun Hitler ez zela Berlinen hil 1945ean. Demagun ez zuela gerra galdu eta Europa osoaz jabetu zela, Britainia Handia barne. Demagun itsasoz doala Manhattanen jabe egitera. Itsasontziko sotoan preso, Charles Chaplin komediantea.

Demagun, 1886an, Frantziatik New Yorkera Askatasun Anderea puskatan daramaten itsasontziaren soto haietan Olivier Legrand izeneko polizoia doala Ameriketara.

Askatasun pertsonalaren alegoria ederra egiten du Harkaitz Canok bi historia horiek bat egiten duten unetik aurrera, kontakizun bizkor, samur, poetiko honetan.

76-Intimitatea. Hanif Kureishi. Itzulpena: Harkaitz Cano. Txalaparta. 2008

Zergatik uzten diogu maitatzeari? Zein da maleta prestatu, atetik atera eta sekula ez itzultzeko unea?

Liburu honetako protagonista trantze horretan dago. Bikotea eta bi semeak utzi eta etxetik alde egin aurreko gauean bere bizitza ustez arrakastatsuak sortzen dion asegabetasunaren arrazoiak aletzen joango da. Gogoan aurrera eta atzera ibiliko ditu era ezin gordinagoan harreman barruko miseria txikiak, amore emateak, ohiturak, desilusioak... bikotearen intimitate biluzia.

77-Han goitik itsasoa ikusten da. Julen Gabiria. Elkar.

Euskal Herrian gerra aurreko urteetan hasi baina, batik bat, II. Mundu Gerra bitarteko Italian gertatzen da nobela sailkaezin hau, eta bizikleta da bi muturrak lotzen dituen aitzakia: Roman Alberdi mutikoak Euskal Herriko itzulian ikusiko du lehenengoz Gino Bartalari karrerista handia; erbestera bidalitako umea dela Frantziako Tourrean topatuko du hurrena, Alpeetako mendi bat igotzen biak, eta haren bila joango da geroago, Toskanako Ponte a Ema herrira.

Txirindulari-kontuez gainera beste gai eta pertsonaia asko aterako zaizkigu bidera ordea: film amerikarrak ezkutuan ematen dituen zinemazalea, txoriak ebanjelizatzen dituen fraidea, lehorrean geratutako marinel portuguesa, egunero ogiren batean gerezia sartzen duen okina, judua dela ezkutatu behar duen neskatza esne-saltzailea...

Idazkera txinpartatsua, giro ameslaria, ukitu surrealista eta injustiziaren kontrako matxinadarako deia elkartzen dira istorio eder bezain hunkigarri honetan, literatura eta bizitza eskutik joan daitezkeela erakutsiz.

78-La lutte finale. Joxean Agirre. Elkar. 2008

Filigrana batean bezala, hainbat gai txirikordatzen da eleberri sailkaezin honetan barrena: bi gizon eta bi emakumeren arteko maitasun harreman korapilatsu eta jostalariak, norbera ala beste bat izatearen inguruko kontsiderazioak, mundua aldatzeko deliberamendutik haren plazerak dastatzera igaro den belaunaldiaren erradiografia, gainbehera fisikoaren iragarpenak sortzen duen larrimina...

Pasadizo, gogoeta zein deskribapenak doitasun zehatzez tartekaturik eta guztia umore-ukitu xume baina etengabe batekin zipriztinduz, maisu handiek soilik dezaketen idazkera lortu du Agirrek: jaso bezain erraza, bihurria bezain arata.

79-Soinujolearen semea. Bernardo Atxaga. Pamiela (2003)

80-Xake nobela. Stefan Zweig. Itzulpena: Xabier Mendiguren. Alberdania (1999)

Beste jarduera intelektual baterako gai ez bada ere, Mirko Czentoviczek, haur garaietatik bertatik, xake jokoan dohain bereziak erakutsi zituen. Munduko txapelduna izatera iritsi da, eta, xake jokalarien artean, maisu ospe handikoa. New Yorketik Buenos Aireserako bidaian, ordea, itsasontzi barruan, aurkari misteriotsu bat agertu zaio: B. jauna, Vienako aitoren seme bat, nazien ihesi Europatik datorrena. Narratzaileak bi pertsonaien ezagutza egiten du eta lehiara bultzatzen ditu.

Larrialdirik gogorrenaren aurrean, gizakiak barru-barruan duen aurrera egiteko ahalmenaz dihardu Zweigek, hain zuzen bere buruaz beste egiteko bezperetan zela. Austriarrak maisuki josten du haria, eromenaren atarian jartzen gaitu eta pertsonaiak bizi duen estuasun bera sentiarazten dio irakurleari, hasieratik bururaino ezinutzizko liburu bitxi honetan.

81-Dantzaldia. Irene Nemirovsky. Itzulpena: Eider Rodriguez. Txalaparta.

Hitzaurrean itzultzaileak zuzen dioen bezala; liburu hau "harribitxia da, hasperen bati buruzko tratatua dela esan daiteke." Halaxe da, hasperen bati buruzko tratatua da liburua, izan ere, hasperen bat mota askotakoa izan daiteke: asperdura hasperena, gorroto hasperena, inbidia hasperena, oinaze hasperena, maitemin hasperena, etsipen hasperena... Hasperen horiek guztiak barnebiltzen ditu Nemirovskyk liburuan, bere hasperen propioak ere badirenak. Hautzaro bakarti eta zorigaiztokoa izan zuen Nemirovskyk eta orriotan ikusten da horren isla. Erraz suma daiteke Nemirovskyren asperdura, gorrotoa, inbidia, oinazea, maitemina, etsipena... liburuaren protagonista den Antoinetteren hasperen bakoitzean. Hasperen askotariko liburua, hasperen batean irakurtzekoa.

82-Begiz jotako ipuinak. Askoren artean. COF (2003)

Begien gozamenerako, munduan zeharreko argazkilari handienetakoek ehizatutako erretratuak eskaintzen dizkigu opari Begiz jotako ipuinak (COF-Alberdania, 2003) bildumak. Ordoñez-Falcon fundazioaren funtsetako argazki bana eman zitzaion aukeran euskal idazle banari; euskal narratzaileen lana izan zen izoztutako une hartatik abiatuz, fotografiak iradokitzen zuena, harrapatzen zuen unea abiapuntu harturik, ipuin bana osatzea. Joxean Muñozek zuzendutako argitalpenean Nan Goldin, Joan Fontcuberta edo Joel-Peter Witkin bezalako argazkilarien artelanei hitza jarri diete hamabost euskal idazleek, Arantxa Iturbek, Jon Alonsok, Xabier Montoiak, besteren artean. Elkarrizketan jartzen ditu liburu bakan eta berezi honek hitza eta irudia, argazkia eta literatura. Begi eta gogoentzako gutizia utziezina.

83-Zinea eta literatura. Harkaitz Cano. Elkar (2008) Saiakera

Zinea eta literatura. Literatura eta zinea. Finean, zerbait kontatzeko beharra dute biek ala biek, bakoitza bere esparrutik. Eta biei disekzioa egin die Harkaitz Canok; muinetaraino sartu die bere bisturi zorrotza eta bien artean daudekeen harremanez, kontraesanez eta loturez hitz egiten digu, zorrotz eta argi, bere idazle ofizioaren talaiatik beti ere.

84-Pereirak dioenez. Antonio Tabuchi. Itzulpena: Fernando Rey. Igela (2006)

Nobela hau XX. mendeko literatur lan handienetako bat da. Portugaleko 30. hamarkadan kokatzen da, Salazarren diktadura garaian, eta Pereira kazetaria du protagonista. Pereira bere munduan bizi da baina eguneroko bizitzan topatzen dituen lagunek eta batez ere bere aldizkarian lan egiteko kontratatzen duen Monteiro Rossi eta bere emaztegai den Martak bere mundutik ateraraziko dute, egoeraren kontzientzia hartuz eta azkenean postura bat hartuz.

Pereiraren istorioaren bidez, idazleak garaiko egoeraren berri (Espainiako gerrate zibila, faxismoa Europan ...) ematen digu eta gai ezberdinak jorratzen ditu: politika eta kazetaritzaren arteko harremanak, literatura, diktadurak eta askatasuna ...

85-1984. George Orwel. Itzulpena: Oskar Arana. Txalaparta (2006)

“Klasikotzat” hartzen dute dagoneko askok, baita profetikoa ere neurri batean, ez baikara gutxitan akordatu nobela honekin gaur egungo munduak hartu duen norabidea ikusita. Gogoratu Winston protagonista eta bere gizarte-kideak Anaia Nagusiak jarritako kamaren begiradapean bizi direla une oro, eta gezurra, beldurra eta gorrotoa direla jaun eta jabe haren inguruan. Orain euskaraz irakur dezakegu nobela artegagarri hau Oskar Arana itzultzaile arabarraren lanari esker.

86-Isturizetik Tolosan barru. JosAnton Artze. Pamiela/Arteola

Liburuko poemetako asko bisualak dira, irakurtzekoak ez ezik ikustekoak. Liburuan ugariak dira, gainera, jolas espazialak. Eta liburuarekin batera binilozko disko txikia ere banatu zen, liburuko poema batzuen grabazioa jasotzen zuena. Berrargitalpenak konpaktu formatuan jaso du grabazio hura, Artzek gehitu dizkion beste poema errexitatu batzuk ere sartuta.

87-Estilo-ariketak. Raymond Queneau. Itzulpena: Xabier Olarra. Igela (2005)

Istoria behin eta berriz kontatzen zaigu, idazkuntzan erabili ohi diren modu eta baliabideetako zenbait erabiliz. Hemen aurkituko du irakurleak kontakizun berbera hiru literatur genero nagusietan kontatua (epikoa, lirikoa, dramatikoa), zenbait figura erretorikoren arabera moldatua edo OULIPO taldeak testu-eraldaketarako proposatutako baliabideez emana. Parodia hitza erabili beharra dago liburu honen ezaugarriak azaltzerakoan. Esperimentalismoa ere erabili izan da. Baina jolas-literatura da hau batez ere.

89-Godoten esperoan. Samuel Beckett. Itzulpena: Juan Garzia

Godoten esperoan, edo gizakiaren xelebretasun trajikoa gordin antzezturik (birritan, behin eta berriro, ez da deus gertatzen). Bide galdu batean, Vladimir eta Estragon esperoan daude, berek ere garbi ez daukatelarik zinezko esperantzaz ari diren ala denbora eta etsipena engainatu beharrez. Eta jardun dihardute, hutsartea betetze aldera. Hitzak. Zentzurik gabeak dirudite batzuetan. Baina ez dira hitzak zentzugabe direnak. Aitzitik, zentzuz beterik daude: zentzugabetasun unibertsalaz, besteak beste. Eta kondenatuta daude giza bufoiok, errepikatzen kondenatuak: burutazioak, mugimenduak, eszena osoak errepikatzen, lehena berriz ere, lehena berriz ere...

90-Erlojuen mekanika, Jose Luis Otamendi , Susa, 2007

Gaurko gizon baten atsegin eta nekeen ispilua da [Erlojuen mekanika](#) poema liburua. Geografia intimo batetik abiatuz, bere buruaz trufa egin eta autokritikan urraturik, gai sozial eta politikoetan murgiltzeraino egiten du bidea.